

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

URRETXUKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzak 2021eko abenduaren 30ean, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

Lehena. HAPOn Gainzuri-Komentua 11.1 azpierzemuko erregimen orokorreko BOEak esleitzeko oinarri arautzaileak onartzea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udalaren webgunean argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari.

Interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete haren aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikularrek, aldez aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Udalbatzari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta berraztertze-errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo ustezko ezespena gertatu arte. Hori guztia, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkezteari kalterik egin gabe.

Denek jakin dezaten argitaratzen dena.

Urretxu, 2022ko urtarrilaren 12a.—Jon Luqui Albisua, alkatea.
(178)

HAPOn Gainzuri-Komentua 11.1 azpierzemuko erregimen orokorreko BOEak esleitzeko oinarriak.

Urretxuko Udalak, horretarako izenpetutako hitzarmenaren arabera, erregimen orokorreko babes ofizialeko 15 etxebizitza, garajeak eta trastelekuak esleitzeko ahalmena beretzat gorde zuen. Etxebizitza horiek «Ormadare SL» enpresak sustatuko ditu 11.1 Gainzuri-Komentua azpierzemuan. Jarduketa hori Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. artikuluan xedatutakoa betez gauzatuko da.

Aiputako esleipena egin ahal izateko honako Oinarriak onartu dira:

1. *Deialdiaren xedea.*

Erregimen orokorreko babes ofizialeko 15 etxebizitza beren garajeekin eta trastelekuekin jabetzan esleitzeko baldintzak ez haztea du xede deialdi honek.

Etxebizitza horiek guztiek trastelekua eta garajea dituzte atxikita, eta, beraz, etxebizitza eskuratuz gero, garajea eta trastelekua ere eskuratuko dira, ezinezkoa baita horiek bereizita eskualdatzea.

2. *Kupoak eta sartzeko araubidea.*

Esleitu diren etxebizitzaren kopuru osotik, honako kupo hauek gordeko dira:

— 1. kupoa: Mugikortasun mugatua duten eskatzaileentzat gordetakoak.

AYUNTAMIENTO DE URRETXU

Anuncio

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 30 de diciembre de 2021, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

Primero. Aprobar las bases reguladoras para la adjudicación de las viviendas VPO de régimen general del subámbito 11.1 Gainzuri-Convento del PGOU.

Segundo. Proceder a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la web municipal.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante El Ayuntamiento Pleno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Urretxu, a 12 de enero de 2022.—El alcalde, Jon Luqui Albisua.
(178)

Bases para la adjudicación de viviendas de protección oficial de régimen general en el subámbito 11.1 Gainzuri-Convento de Urretxu.

El Ayuntamiento de Urretxu en virtud de convenio suscrito al efecto se reservó la potestad de adjudicación de 15 viviendas de protección oficial de régimen general, garajes y trasteros, que la mercantil «Ormadare S.L.» va a promover en el subámbito 11.1 Gainzuri-Convento de Urretxu. Dicha actuación se ejecutará en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 80 de la Ley 2/2006, del Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Para proceder a dicha adjudicación se aprueban las siguientes Bases:

1. *Objeto de la convocatoria.*

La presente convocatoria tiene por objeto establecer las condiciones de la adjudicación de 15 viviendas de protección oficial de régimen general, en propiedad, con sus garajes y trasteros.

Todas estas viviendas tienen su trastero y garaje vinculados a ellas, de forma que la adquisición de la vivienda conllevará a de los anejos, siendo imposible su transmisión por separado.

2. *Cupos y régimen de acceso.*

Del total de viviendas a adjudicar, se reservarán los siguientes cupos:

— Cupo 1: Reservado para personas demandantes con movilidad reducida.

Kupo honetan, araubide orokorreko babes ofizialeko egokitu-tako 1 etxebizitza esleituko da mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsona desgaituen artean.

Helburu horretarako gordetako etxebizitza inork eskatu ez duelako esleitu gabe geldituz gero, kupo orokorrean esleituko diren etxebizitzaren barnean sartuko da hori.

Mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonatzat hartuko dira Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduak kasu horretarako zehazten dituenak, etxebizitzaren beharrari dagokionez:

1. Gurrpil-aulkian daudenak.
2. Ibiltzeko nahitaez bi makulu behar dituztenak.
3. Minusbaliotasunaren maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura arautzen duen 1971/1999 Errege Dekretuan, abenduaren 23koan, III. eranskinean datozen d) eta h) bitarteko paragrafoekin lotuta 7 puntu edo gehiago dituztenak.

– 2. kupa: Gainerako eskatzaileak. Kupo honetan txertatuko dira gainerako 14 etxebizitzak.

Kupo bakoitzerako, erreserba-zerrendak egingo dira.

3. Etxebizitzen eta beren eranskinen lagapen-araubidea.

Jabetza-eskubidea izango da sustapen honetako babes ofizialeko etxebizitzaren lagapen-araubidea.

Babes ofizialeko etxebizitzak ohiko etxebizitza iraunkor gisa erabili behar dituzte esleipendunak.

Etxebizitzek babes ofizialeko araubidea izango dute indarrean dagoen legediak ezarritako epean, hau da, etengabe, Eusko Jaurlaritzak dagokion unean ematen dion behin betiko kalifikazioaren arabera, betiere.

4. Etxebizitza bat eskuratzeko baldintza orokorrak.

Babes ofizialeko etxebizitzaren esleipendun izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte eskatzaileak:

4.1. Baldintza pertsonalak:

4.1.1. Esleipendunak pertsona fisikoak/naturalak izango dira (adin nagusikoak edo adingabe emantzipatuak), edota bizikidetzaren unitateak.

Adingabe emantzipatuak bere familiatik kanpo bizi dela eta, duen lan-egoerari esker, bizitzeko oinarrikoak dituen beharrei aurre egiteko baliabide ekonomikoak dituela egiaztatuko beharko du. Xede horretarako, alokairu-kontratuak edota familiatik kanpo bizi dela egiaztatzen duen beste agiriren bat aurkeztu beharko du. Era berean, lan-bizitzaren agiri eguneratua ere aurkeztu beharko du, eskaera egiten duen unean.

Bizikidetzaren unitateatzat hartuko da etxe berean bizi diren edo biziko diren bi pertsona edo gehiagok osatutakoa, baldin eta horien arteko lotura ezkontzaren bidezkoa edo ezkontzakoaren antzeko beste lotura-motaren baten bidezkoa bada, eta baita adopzioaren edota 3. maila arteko odol-ahaidetasunaren eta 2. maila arteko ezkontza-ahaidetasunaren bidezkoa bada ere.

Bizikidetzaren unitateen kasuan, adinez nagusi diren guztiak izan beharko dute titularkide ezinbestean, ondorengo kasuetan:

– Irabazpidezko erregimenean ezkontutako kideak. Ondasunen banantze-erregimenean ezkontutako kideak edo izateko bikoteak izanez gero, esleipendunak titularkidetasunaren ehunekoa erabaki ahal izango dute.

– 3. maila arteko alboko odol-ahaidetasuna duten bizikidetzaren unitateko kideak.

– 2. maila arteko ezkontza-ahaidetasuna duten bizikidetzaren unitateko kideak.

Se adjudicará en este cupo 1 vivienda de protección oficial de régimen general adaptada entre las personas con movilidad reducida de carácter permanente.

Si la vivienda asignada a dicha reserva quedara sin adjudicarse por inexistencia de demandantes pasará a formar parte del número de viviendas adjudicables en el cupo general.

Se consideran personas con movilidad reducida de carácter permanente las así descritas en la Orden de 15 de octubre de 2012 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, sobre circunstancias de la necesidad de vivienda:

1. Las personas confinadas en sillas de ruedas.
2. Las personas dependientes absolutamente de dos bastones para deambular.
3. Las personas que sumen 7 puntos o más en relación con los apartados d) a h) de anexo III del Real Decreto 1971/1999 de 23 de diciembre, por el que se regula el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación de grado de minusvalía.

– Cupo 2: Resto de solicitantes. Se incluirán en este cupo las 14 viviendas restantes.

Se elaborarán listas de reserva por cada cupo.

3. Régimen de cesión de las viviendas y sus anejos.

El régimen de cesión de las viviendas de protección oficial de la presente promoción será el de derecho de propiedad.

Las viviendas de protección oficial deberán destinarse a domicilio habitual y permanente de sus adjudicatarios/as.

Las viviendas quedan sometidas al régimen de protección oficial durante el periodo indicado en la legislación vigente, esto es, permanentemente, todo ello conforme a la calificación definitiva que en su momento otorgue el Gobierno Vasco.

4. Condiciones generales para acceder a una vivienda.

Para acceder a la adjudicación de las viviendas de VPO, las personas solicitantes deberán reunir las siguientes condiciones:

4.1. Condiciones personales:

4.1.1. Los/as adjudicatario/as deben ser personas físicas/naturales (mayores de edad o menores emancipados/as) o, unidades convivenciales.

El/la menor de edad emancipado/a deberá acreditar su residencia fuera del núcleo familiar y que su situación laboral le permite disponer de medios económicos para atender sus necesidades vitales. A tales efectos deberá presentar contratos de arrendamiento o cualquier otro documento que acredite la residencia fuera del núcleo familiar. Igualmente deberá presentar una vida laboral actualizada al momento de presentación de su solicitud.

Se entiende por unidad de convivencia la compuesta por dos o más personas, unidas por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal, así como por adopción o consanguinidad, hasta el 3.º grado, y por afinidad hasta el 2.º grado, que residan o vayan a residir en el mismo hogar.

En los casos de unidades convivenciales deberán ser cotitulares forzosamente todas las personas mayores de edad en los siguientes casos:

– Cónyuges casados/as en régimen de gananciales. Cónyuges en régimen de separación de bienes y parejas de hecho, si bien éstos/éstas podrán decidir el porcentaje de cotitularidad.

– Miembros de la unidad convivencial unidos/as por lazos de consanguinidad colateral hasta 3.º grado.

– Miembros de unidades convivenciales unidos/as por afinidad hasta el 2.º grado.

4.1.2. Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoaren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan (Etxebide) behar bezala izena emanda izatea, 2022ko martxoaren 31n.

4.1.3. Erroldatzea.

A) Urola Garaia Mankomunitatea osatzen duten udalerriren batean erroldatuta egotea 2021/12/1eko datan, etengabeko izaeraz 3 urtean gutxienez. Lehenetasuna izango dute baldintza hori Urretxuko udalerriarekin lotuta betetzen dutenek.

B) Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrri batean erroldatuta egotea 2021/12/1eko datan, etengabeko izaeraz 3 urtean gutxienez.

2021/12/1a baino lehen gutxienez 3 urteko etengabeko antzinasunez Urretxun erroldatuta dauden eskatzaileek lehenetasuna izango dute Urola Garaia Mankomunitateko gainerakoekiko; beraz, azken horiek itxarote-zerrendaren bukaeran zerrendatuko dira, eta zerrenda bukatu eta etxebizitza libre gelditzen badira soilik izan daitezke esleipendun.

2021/12/1a baino lehen gutxienez 3 urteko etengabeko antzinasunez Urola Garaia Mankomunitateko gainerako udalerrietan erroldatuta dauden eskatzaileek lehenetasuna izango dute EAEkoekiko; beraz, azken horiek itxarote-zerrendaren bukaeran zerrendatuko dira, eta zerrenda bukatu eta etxebizitza libre gelditzen badira soilik izan daitezke esleipendun.

Eskaerak titular bat baino gehiago baditu, nahikoa da horietako batek erroldatzeari dagokion baldintza betetzea.

C) Era berean, babes ofizialeko etxebizitza esleitzea eska dezakete erroldatzeari dagokion baldintza bete ez arren, azken 3 urtetan modu jarraituan Urretxun lan egin dutela egiaztatzen dutenek; 2020 urtea hartuko da erreferentziatzat.

Urola Garaia Mankomunitatean erroldatuta daudenek lehenetasuna izango dute lan-baldintza egiaztatu dutenen taldearekiko. Horren ondorioz, modu jarraituan lan egin dutela egiaztatzen dutenen taldeko eskatzaileak itxarote-zerrendaren amaieran zerrendatuko dira, Urretxu ez den EAEko gainerako udalerrietan eta Urola Garaia Mankomunitateko udalerrietan erroldatuta daudenek aurretik.

4.2. Etxebizitza-premiaren baldintzak:

Etxebizitza-premiatzen babes ofizialeko etxebizitzak arautzen dituen autonomia-araudiak ezartzen dituen egoerak hartuko dira; zehazki, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduak etxebizitza-premiari buruz ezarritakoak.

Bizikidetzaren unitateko kide guztiek ez dute izango jabetzan, jabetza soillean, azalera-eskubidean edo gozamenean Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza baten % 50 baino gehiago, araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitza gisa esleitu diren etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioaren eguna baino lehenagoko bi urteko epean.

Egoera horretan jarraitu beharko da salerosketa horren eskritura publiko egin arte.

Hala ere, honako egoera hauetako batean daudela agiri bidez egiaztatzen duten eskaerak ere onartuko dira:

1. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza bada, eta martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua- ren inguruko finantza-neurriei buruzkoak, 17.3 artikuluan ezarrita-

4.1.2. Estar convenientemente inscritos/as en el Registro de solicitantes de Vivienda de Protección Oficial del Servicio Vasco de Vivienda (Etxebide) a fecha 31 de marzo de 2022.

4.1.3. Empadronamiento.

A) Estar empadronados/as en cualquiera de los municipios que conforman la Mancomunidad Urola Garaia a fecha 1/12/2021 con carácter ininterrumpido durante un mínimo de 3 años. Tendrán preferencia quienes cumplan este requisito en relación con el municipio de Urretxu.

B) Estar empadronados/as en cualquiera de los municipios que conforman la Comunidad Autónoma del País Vasco a fecha 1/12/2021 con carácter ininterrumpido durante un mínimo de 3 años.

Las/los solicitantes empadronados/os en Urretxu a fecha 1/12/2021 con una antigüedad ininterrumpida mínima de 3 años tendrán preferencia sobre las/os del resto de la Mancomunidad Urola Garaia, por lo que estas/os últimas/os quedarán listadas/os al final de la lista de espera y solo en caso de agotarse la misma con viviendas pendientes de ocupar podrán ser adjudicatarias/os.

Los/as solicitantes empadronados/as en cualquiera de los municipios restantes de la Mancomunidad Urola Garaia a fecha 1/12/2021 con una antigüedad ininterrumpida mínima de 3 años tendrán preferencia sobre los/as del resto de la CAPV, por lo que estos/as últimos/as quedarán listados al final de la lista de espera y solo en caso de agotarse la misma con viviendas pendientes de ocupar podrán ser adjudicatarios/as.

En el caso de las solicitudes en que conste más de un/a titular, será suficiente con que alguno/a de ellos/as cumpla el requisito del empadronamiento.

C) Asimismo, podrán acceder a la adjudicación de las viviendas de VPO, aquellas personas que sin cumplir el requisito de empadronamiento, acrediten haber trabajado ininterrumpidamente en Urretxu durante los últimos 3 años, tomando como referencia el año 2020.

Los/as solicitantes que cumplan las condiciones de empadronamiento en la Mancomunidad Urola Garaia, tendrán preferencia sobre el grupo de quienes acrediten la condición laboral. En consecuencia, los/las solicitantes del grupo que cumpla la condición de permanencia laboral quedarán listados/as al final de la lista de espera, con anterioridad a los/as empadronados en el resto de los municipios de la CAPV distintos a Urretxu y a los municipios de la Mancomunidad Urola Garaia.

4.2. Condiciones de necesidad de vivienda:

Las circunstancias de necesidad de vivienda serán las establecidas en la normativa autonómica reguladora de la vivienda de protección oficial, en particular en el Decreto 39/2008 de 4 de marzo y la Orden de 15 de octubre de 2012 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, o la que resulte de aplicación, sobre circunstancias de necesidad de vivienda.

Todos/as y cada uno/a de los/las miembros de la unidad convivencial deberán carecer de vivienda ubicada en la Comunidad Autónoma del País Vasco en régimen de propiedad, nuda propiedad, derecho de superficie o usufructo de más del 50 %, durante los 2 años inmediatamente anteriores a la fecha de calificación provisional de las viviendas objeto de adjudicación como VPO de régimen general.

Se deberá continuar en dicha situación hasta el momento de elevar a escritura pública la compraventa.

No obstante, también se admitirán las solicitudes que acrediten documentalment e encontrarse en alguno de los siguientes supuestos:

1. Que se trate de una vivienda ubicada en la Comunidad Autónoma Vasca, adquirida con una anterioridad mínima de 5 años respecto de las fechas de referencia establecidas en el artículo 17.3 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen

ko erreferentzia-data kontuan hartuta, gutxienez 5 urte lehenago eskuratutakoa bada; eskatzailearen ohiko etxebizitza iraunkorra bada, eta abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak, ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez baditu.

2. Banantzeko edo dibortziatzeko edota izatezko bikoteak amaitzeko prozedura baten ostean, judizialki beste ezkontidearen familia-helbide gisa esleitutako etxebizitza bada.

3. Gerora sortutako ordaintzeko ezintasunaren ondorioz hipoteka-betearazpena jaso ondoren, hirugarren maila arteko odol-ahaidetasunik edo ezkontza-ahaidetasunik ez duen pertsona bati epaiketa bidez edo notario bidez esleitutako etxebizitza bada.

4. Indarreko araudian xedatutako irisgarritasun-baldintzak betetzen ez baditu, eta titularrak 70 urtekoak edo gehiagokoak badira.

5. Gainokupatuta dagoen etxebizitza bada. Etxebizitza bat gainokupatuta dagoela joko da, bertan bizi direnek, gutxienez bi urte errolatuta daramatzatenek, ratio hau gaintitzen dutenean:

- Pertsona bat bizi denean: 25 m² erabilgarri.
- Bi pertsona bizi direnean: 33 m² erabilgarri.
- Hiru pertsona edo gehiago bizi direnean: 15 m² erabilgarri han bizi den pertsona bakoitzeko.

Terraza, balkoi edo esekitokien azalerak ez dira zenbatuko.

6. Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzekoan, jasotako sarbideei eta igogailuei buruzko xedapenak betetzen ez dituen eraikin bat bada, haren titularretako bat mugikortasun mugatu iraunkorra duen desgaitua denean betiere, eta partaidetzen balio osoa 75.000 eurotik gorakoa ez denean.

4.3. Baldintza ekonomikoak:

Interesatuak azken zerga-ekitaldian likidatu dituzten urteko diru-sarrera haztatuak egiaztatu beharko dira; diru-sarrera horien gutxieneko eta gehiengo zenbatekoen muga hau izango da: 12.000 eurotik 39.000 eurora.

Genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen dutenei ez zaie gutxieneko diru-sarrerari dagokion baldintza betetzeko eskatuko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoak, agindutakoa betez.

Mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonen kasuan, edota abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera adimen-desgaitasuna duten pertsonen kasuan, nahikoa izango da 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

Diru-sarreraren eta diru-sarrera konputagarrien jatorriari dagokionez, 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan jasotako araudia aplikatuko da.

Araudi hori aplikatuko da, era berean, diru-sarreraren hartzaileak zein diren zehazteko eta diru-sarreraren haztapena egiteko.

4.4. Atzeritarrek bete beharreko baldintzak:

Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen, aurreko baldintza guztiak betetzeaz gain, iraupen luzeko egoitza-baimena izan behar dute.

jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, que constituya el domicilio habitual y permanente de la persona solicitante y que no reúna las condiciones mínimas de habitabilidad establecidas en el Decreto 317/2002 de 30 de diciembre, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado o normativa que lo sustituya.

2. Que se trate de una vivienda que haya sido designada judicialmente como domicilio familiar del otro/a cónyuge, tras un procedimiento de separación o de divorcio o de extinción de parejas de hecho.

3. Que se trate de una vivienda adjudicada judicial o notarialmente a una persona con la que no guarda parentesco por consanguinidad o afinidad hasta el tercer grado, tras haber sido objeto de una ejecución hipotecaria a consecuencia de una incapacidad de pago sobrevenida.

4. Que se trate de una vivienda que no reúna condiciones de accesibilidad, a tenor de la normativa aplicable y cuyo titular o titulares sean personas de 70 años o más.

5. Que se trate de una vivienda sobreocupada. Se entiende que una vivienda incurre en esta situación cuando el número de personas residentes en la misma, con 2 o más años de empadronamiento, supere las siguientes ratios:

- Una persona residente: 25 m² útiles.
- Dos personas residentes: 33 m² útiles.
- Tres o más personas residentes: 15 m² útiles x n.º residentes.

No se computarán las superficies de terrazas, balcones o tendaderos.

6. Que se trate de una vivienda que forme parte de un edificio que no cumpla las determinaciones relativas a accesos y aparatos elevadores contenidas en el Decreto 68/2000, de 11 de abril por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad, o el que resulte de aplicación, siempre que alguno de sus titulares sea una persona con movilidad reducida permanente, y siempre que el valor total de las participaciones en la misma no exceda de los 75.000 €.

4.3. Condiciones económicas:

Deberán acreditarse en el último ejercicio fiscal liquidado por las personas interesadas ingresos anuales ponderados entre las siguientes cuantías mínima y máxima: 12.000 a 39.000 euros.

No se exigirá el cumplimiento del requisito de ingresos mínimos a aquellas personas que acrediten la condición de víctimas de violencia de género, tal y como se exige en la Orden de 4 de octubre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas de acción positiva en materia de vivienda para mujeres víctimas de violencia de género, o la que resulte de aplicación.

En el caso de personas con movilidad reducida de carácter permanente, o de personas con discapacidad psíquica declaradas como tales en base a lo dispuesto en el Real Decreto 1971/1999 de 23 de diciembre, o la que resulte de aplicación, bastará con acreditar unos ingresos mínimos de 3.000 euros.

En lo referente a la procedencia de los ingresos e ingresos computables, se aplicará la normativa recogida en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo de 2008, o la que resulte de aplicación.

También se aplicará la mencionada normativa para determinar quiénes son las personas receptoras de ingresos y para realizar la ponderación de los ingresos.

4.4. Requisitos para las personas extranjeras:

Las personas de nacionalidad extranjera, además de cumplir con todas las condiciones anteriores, deberán disponer de autorización de residencia de larga duración.

5. Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko du Urretxuko Udalak.

Kasu bakoitzean egokiak iruditzen zaizkion ikerketak alde batera utzita eta horiek kaltetu gabe, administrazioak edozein agiri osagarri eska dezake, beharrezkoa dela ikusten badu.

Eskaerak onartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu behar da xede horretarako ezarritako epean, honako agiri hauen bidez:

1. Erroldatzea.

Errolda-ziurtagiria, antzinasuna adieraziz.

2. Etxebiden izena emanda egotea.

Urretxuko Udalak ofizios egiaztatuko du, Etxebideren Etxebizitzaren Erregistroak igorritako agirien bidez.

3. Udalerrian lan egitea.

Lan-bizitzaren agiria eta lana egiten den enpresaren ziurtagiria.

4. Egoera zibilaren ziurtagiria.

Ezkongabea bada: Erregistro Zibilak igorritako hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria.

Ezkondua edo alarguna bada: familia-liburuaren kopia.

Bananduta edo dibortziatuta badago: banantzearen edo dibortzioaren epaia. Etxebizitza edota seme-alabak izanez gero, hitzarmen arauemailearen kopia ere aurkeztuko da.

Izatezko bikoteen kasuan: Izatezko Bikoteen Erregistroan izena emanda dutela egiaztatzen duen ebazpenaren kopia. Izatezko bikote izateari utzi dioten kasuan, Izatezko Bikoteen Erregistroaren dagokion ebazpena, hitzarmen arauemailearekin batera.

5. Etxebizitzarik ez izatea.

Etxebizitzaren titular guztien ondasunen ziurtagiria, Foru Ogasunak emandakoa.

Etxebizitzarik ez izatearekin pareka daitekeen beste egoeraren bat alegatuz gero, egoera hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.

Etxebizitza bat jabetzan izanez gero baina etxebizitzak bizigarritasun-baldintza eskasa duela edota antolamendutik kanpo dagoela alegatuz gero, egoera hori egiaztatu egin behar da udaleko zerbitzu teknikoek egindako txostenen bidez.

6. Diru-sarrerak.

Interesatuak aurkeztu duen PFEZaren aitoren kopia bidez egiaztatuko dira; Foru Ogasunak edota udalak erkatutako kopiak izango dira.

Aitorpena egin ez den kasuetan edota egitera behartuta ez dauden kasuetan, aitorpena ez dela egin frogatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiria aurkeztuko da bi kasuetan, bizikidetzan unitateko adin nagusiko kide guztiei dagokiena.

Kasu horretan, honako agiri hauek ere aurkeztuko dira:

– Lan-bizitzaren txostena.

– Besteren kontura lan egiten duten langileak: dagokion ekitaldiko nominak edo enpresa-ziurtagiriak, indarrean dagoen lan-araudiaren eskakizunak betetzen dituztenak.

– Erretiroa hartua dutenak edo pentsiodunak oro har, lanerako ezintasun- edo baliaezintasun-egoeran daudenak barne: jasotako pentsioaren edo laguntza ekonomikoaren ziurtagiria.

5. Acreditación del cumplimiento de las condiciones.

El cumplimiento de las condiciones establecidas en estas bases será verificado por el Ayuntamiento de Urretxu.

Independientemente y, sin perjuicio de las investigaciones que considere pertinente llevar a cabo en cada caso, la Administración podrá solicitar cualquier otra documentación complementaria que entienda necesaria.

El cumplimiento de las condiciones para la admisión de solicitudes se deberá acreditar en el plazo establecido al efecto de la siguiente manera:

1. Empadronamiento.

Certificado de empadronamiento, con indicación de la antigüedad.

2. Inscripción en Etxebide.

Se verificará, de oficio, por el Ayuntamiento de Urretxu, mediante documentación que emita el propio Registro de Vivienda Etxebide.

3. Trabajar en el municipio.

Vida laboral y certificación de la empresa donde se preste el trabajo.

4. Justificante de Estado Civil.

Si es soltero/a: certificado literal de nacimiento emitido por el Registro Civil.

Si es casado/a o viudo/a: fotocopia del libro de familia.

Si es separado/a o divorciado/a: la sentencia de separación o divorcio. En el caso de existencia de vivienda y/o hijos/as presentar también fotocopia del convenio regulador.

En caso de parejas de hecho: fotocopia de la resolución por la que se inscriben en el Registro de Parejas de Hecho. Si se trata de disolución de una pareja de hecho, la resolución correspondiente del Registro de Parejas de Hecho acompañada del convenio regulador.

5. Carencia de Vivienda.

Certificado de bienes de todos/as los/as titulares de la vivienda expedido por la Hacienda Foral.

Si se alegara alguna de las circunstancias equiparables a la carencia de vivienda, se presentará documentación acreditativa de tal circunstancia.

En caso de alegarse la propiedad de vivienda en deficientes condiciones de habitabilidad o viviendas fuera de ordenación, se acreditará tal condición mediante informes de los servicios técnicos municipales.

6. Ingresos.

Se acreditarán mediante aportación de fotocopias compulsadas por la Hacienda Foral o el Ayuntamiento de la última declaración del IRPF presentada por la persona interesada.

En caso de no haber hecho o de no estar obligados/as a hacer declaración, certificación de la Hacienda Foral de no haberse efectuado dicha declaración, en ambos casos, referida a todas las personas miembros de la unidad de convivencia mayores de edad.

En este supuesto se presentará, además, la siguiente documentación:

– Informe de vida laboral.

– Trabajadores/as por cuenta ajena: Nóminas o certificados de empresa del ejercicio correspondiente, ajustados a los requisitos de la reglamentación laboral vigente.

– Jubilados/as o pensionistas en general, incluidos/as trabajadores/as en situación de incapacidad laboral o invalidez: Certificación de la pensión o prestación económica percibida.

– Beren kontura lan egiten duten langileak: Gizarte Segurantzari urtero egindako kotizazioaren ziurtagiria, zenbatekoak kalkulatzeko erabilitako urteko kotizazio-oinarria eta diru-sarreraren aitorpena jasotzen dituen.

– Langabezia-egoeran daudenak, langabeak: Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) ziurtagiria, enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda dagoela egiaztatzen duena eta jasotako laguntzak egiaztatzen dituen; edo, hala badagokio, laguntzarik ez duela jasotzen egiaztatzen duena.

